DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Herritarren Partaidetza eta Arreta
Participación y Atención Ciudadana

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481356 | udala_partaidetza@donostia.eus | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

| GOBERNANTZA IREKI ETA KULTURAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAREN EBAZPENA | RESOLUCIÓN DE LA CONCEJALA DELEGADA DE GOBERNANZA ABIERTA Y CULTURA |
| --- | --- |
| 1996. urtean Donostiako eta Usurbilgo Udalek Zubietako Herri Batzarra Administrazioko Organo Osagarri bezala eratzea onartu zuten aipatutako gunean.<br>Hortaz, Zubietako Herri Batzarra Donostiako Udalaren Administrazioko Organo Osagarria da eta berau ROMaren 1. gehigarrian jasota geratzen da. | En el año 1996 los Ayuntamientos de San Sebastián y Usurbil aprobaron la creación de la Junta Vecinal de Zubieta como órgano complementario de Administración de este enclave.<br>Por tanto, la Junta Vecinal de Zubieta es órgano complementario de Administración de este enclave y así queda recogido en el anexo 1º del ROM. |
| Goian aipatutako gehigarriaren 10.5 artikuluan dioen harira, Zubietako Herri Batzarraren funtzioa Udalek bere eskuetan jartzen dituzten fondo publikoen administrazioa eta zuriketa batzarraren mantenurako, zerbitzu publikoetarako eta obra eta jarduera txikietarako izango da. | En referencia al art. 10.5 del mencionado anexo, será función de la Junta Vecinal de Zubieta administrar y rendir cuentas de los fondos que los Ayuntamientos pongan a su disposición para el mantenimiento de la Junta, de los servicios públicos del barrio y para las obras y actividades menores que se le encomienden. |
| Zubietako Herri Batzarrak bere funtzioak betetzeko Donostiako Udalaren diru esleipena daukan aurrekontu onartua du Herritarren Partaidetza Zerbitzuak 2026ko aurrekontuko 481.02 partidan 5.000 euroko kopuruagatik. Aurrekontu esleipen honek dirulaguntza izenduna izaera du. | Para poder desarrollar las mencionadas funciones la Junta Vecinal de Zubieta tiene consignada una aportación de 5.000 € en la partida 481.02 en el presupuesto del 2026 del Servicio de Participación Ciudadana del Ayuntamiento de San Sebastián. Dicha consignación presupuestaria tiene carácter de subvención nominativa. |
| Zubietako Herri Batzarrari emandako dirulaguntza izenduna Donostiako Udalaren 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago, eta dirulaguntza honi dagokion Planaren fitxan zehaztutako helburu estrategiko eta espezifikoak lortzen laguntzen du. | La subvención nominativa a la Junta Vecinal de Zubietako está prevista en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del Ayuntamiento de San Sebastián, contribuyendo al logro de los objetivos estratégicos y específicos definidos en la ficha del Plan correspondiente a esta subvención y que son los siguientes: |
| Hona hemen **helburu estrategikoak:**<br>**-** Zubietako Herri Batzarrak bere funtzioak bete ahal izateko jarduerak eta gastu korronteak finantzatzea. | **Objetivos estratégicos:**<br>- Financiación de actividades y gastos corrientes para el ejercicio de las funciones de la Junta Vecinal de Zubieta. |
| **Helburu zehatzak**:<br>-Hitzarmen honen eta haren bidez artikulatzen den dirulaguntzaren helburua funtsak administratzea eta Zubietako Herri Batzarraren esku jartzea da, bere egitekoak betetzean sortzen diren mantentze gastuak ordaintzeko. Hona egitekoen zerrenda: | **Objetivos específicos:**<br>El objeto del presente convenio y de la subvención que se articula a través del mismo es la administración de fondos y su puesta a disposición de la Junta Vecinal de Zubieta para sufragar los gastos de mantenimiento que se originen en el ejercicio de sus funciones : |
| - Zubietaren arazoei buruzko informazioa ematea Udalari.<br>- Udal zerbitzuei aholku ematea, agintzen zaizkion | - Informar al Ayuntamiento sobre los problemas de Zubieta.<br>- Asesorar a los servicios municipales en las |

13143n I

| | |
|---|---|
| gaietan. | materias que se le encomienden. |
| - Udalak hausnartu beharreko proposamen zehatzak egitea. | - Elaborar propuestas concretas que el Ayuntamiento debe reflexionar . |
| - Berari dagozkion azterlan eta proiektuei buruz Udalak hartzen dituen erabakiak betetzen direla ziurtatzea. | - Asegurar el cumplimiento de las decisiones del Ayuntamiento sobre los estudios y proyectos que le corresponden . |
| - Batzarra eta auzoko zerbitzu publikoak mantentzeko eta agintzen zaizkion obra eta jarduera txikiak egiteko Udalak bere esku jartzen dituen funtsak administratzea eta kontuak ematea . | - Administrar y rendir cuentas de los fondos que el Ayuntamiento ponga a su disposición para el mantenimiento de la Junta y de los servicios públicos del barrio, así como para la realización de las obras y pequeñas actividades que se le encomienden . |
| - Udalak ematen dion beste edozein eskumen. | - Cualquier otra competencia que le atribuya el Ayuntamiento |
| Horiek direla eta proposatu da atxekitako hitzarmen hau izenpetzea, bi entitateen arteko lankidetza modua zehazten duena, nola Donostiako Udalaren hala Zubietako Herri Batzarraren helburuak betetzeko. | Por todo ello, se propone la firma del convenio adjunto, donde se recoge la forma de colaboración entre ambas entidades para el logro de los objetivos tanto del Ayuntamiento de San Sebastián como de la Junta Vecinal de Zubieta. |
| Zubietako Herri Batzarrak dirulaguntza eskaera egin du 11.500 euroko gastuei dagokiona, horietatik 6.500 euro Usurbileko Udalak laguntzen dituelarik. Beraz, diruz lagungarri 5.000 euro izango dira. | La Junta Vecinal de Zubieta ha presentado la solicitud de subvención con unos gastos correspondientes a 11.500 euros de los cuales 6.500 euros los ha subvencionado el Ayuntamiento de Usurbil, por lo que son subvencionables 5.000 euros. |
| Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. 1 a) artikuluak xedaturikoaren arabera, zuzenean eman ahal izango dira Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak, Hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan, eta 28. artikuluak xedatzen du Hitzarmenak izango direla dirulaguntza horiek bideratzeko ohiko tresnak. | El artículo 22. 1 a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones dispone que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos, en los términos recogidos en los Convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones estableciendo en el art. 28 que los Convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones. |
| Bestalde, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65.3 artikuluak aurreikusten du, dirulaguntza izendunak direnean, kontzesioaren oinarri arau-emaile izaera izango duela kontzesio ekintzak edo hitzarmenak DLOean xedaturikoaren ondorioetarako eta haren gutxieneko edukia finkatuko du; pertsona onuradunen betebeharrak eta konpromisoak jasotzen ditu, berriz, 14. Artikuluak. | Por su parte, el artículo 65.3 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento General de Subvenciones (RGS), prevé que, en el supuesto de subvenciones nominativas, el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto en la LGS y determina el contenido mínimo del mismo, en tanto que el art. 14 recoge las obligaciones y compromisos de las personas beneficiarias. |
| - Horregatik guztiagatik, Gobernantza Ireki eta Kulturako ordezkari honek Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko uztailaren 6an emandako eskuordetzaz, zeina | Por todo ello, la Concejala delegada de Gobernanza Abierta y Cultura en uso de las facultades conferidas por delegación de la Junta de |

| | |
|---|---|
| Batzarrak berak 2025eko urriaren 29an hartutako erabakiz aldatu baitzen | Gobierno Local de 6 de julio de 2023, modificada por acuerdo de la misma Junta de fecha 29 de octubre de 2025 |
| **EBATZI DU** | **RESUELVE** |
| **Lehenengoa:** Zubietako Herri Batzarrari (CIF: G20581492) 2026. urterako dagokion 5.000 €ko diru laguntza ematea. | **Primero:** Conceder a la Junta Vecinal de Zubieta (CIF: G20581492) una subvención, por importe de 5.000 € correspondiente al año 2026. |
| **Bigarrena:** Onartzea eranskin moduan doan hitzarmen proposamena. | **Segundo:** Aprobar la propuesta de Convenio que se adjunta. |
| **Hirugarrena:** Gastua 2026ko Aurrekontuko Herritarren Partaidetza Zerbitzuko programako 481.02 kontu-sailan eranstea. | **Tercero:** Imputar el gasto a la Partida 481.02, Programa del Servicio de Participación Ciudadana, Presupuesto 2026. |
| **Laugarrena:** Esleitutako dirulaguntzaren %100 ordaintzea, hitzarmen hori izenpetzen den egunean, guztia Kutxabankeko 2095-5069-06-1068477768 kontu korrontean. | **Cuarto:** Abonar el 100% importe de la subvención concedida a la fecha de la firma del citado convenio, en la cuenta corriente de Kutxabank 2095-5069-06-1068477768. |
| **Bosgarrena:** Ebazpen honen berri ematea Erakunde onuradunari. | **Quinto:** Notificar la presente Resolución a la Entidad beneficiaria. |

10740n XVII

Donostian, sinaduraren egunean (digitalki sinatua)

**Gobernantza Ireki eta Kulturako zinegotzi ordezkaria**
Concejala delegada de Gobernanza Abierta y Cultura

Ana López Loyarte

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Ana Lopez Loyarte (13/03/2026 14:06 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : VUOU-2JGE-46JZ-L2VC